






## HIRIGINTZA

### 1. 2013ko Aurrekontuaren balantzea:




## 2. 2014ko Aurrekontuaren aurreikuspena:

Gastuetan, pertsonal gastuak (udal langileen soldatak eta aseguruak...), zerbitzuen erosketak (argia, gasa, paleta, garbiketa-zerbitzua, arkitektoaren eta aparejadorearen kontratazioak...), transferentzia arruntak (Tolomendi, Tolosaldea Garatzen...), maileguak eta maileguen interesak eta abar sartzen dira.



Sarreretan, aldiz, zuzeneko zergak (IBI zerga, ibilgailuena, zaborrarena, jarduera ekonomikoena...), zeharkako zergak (obrena), tasak eta bestelako zergak (hilerri-zerbitzua, Union Fenosa, Munksjö...), transferentzi arruntak (Aldundiak emandako Foru Fondoa) eta abar jasotzen dira.



- Tasak: Udalak 2014ko tasak Kontsumorako Prezioen Indizea edo KPI (gazteleraz IPC) oinarri hartuta igotzea erabaki du; hau da, bizi-mailaren igoera erreferentziatzat hartuta. Beraz, IBI Zergak (edo kontribuzioak), Ibilgailuen Gaineko Zergak eta Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergak KPI-ren arabera igoera izango dute. Eraikitze-lan edo Obren Gaineko Zerga, aldiz, %4an mantentzea erabaki da, eta Gainbalioaren Zerga ere (Plusvalia) ez da igoko. Mendietako egurra ateratzeagatik tasan edo fidantzan, aldiz, aldaketak izango dira. Lursailaren jabeari ez, egurra atera behar duen enpresari egokituko zaio fidantza ordaintzea.

- Etxe hutsei aplikatuko zaien zerga: Berastegin dauden 500 etxebizitzetatik 90 hutsik daude, eta etxebizitza horiek mugimenduan edo betetzera bidean jartzea da asmoa. Zerga ezartzeko garaian, hutsik dauden eta etxe-jabea bertan erroldatu gabe daukaten etxebizitzak hartuko dira kontuan. Hasteko eta 2014an, dagokien IBI zergaren %25eko igoera aplikatuko zaie. 2015etik aurrera, berriz, beste hainbat udalerriren eredia jarraituz, igoera %50ekoa izatea erabaki du Udalak.

- Familia ugariak IBI zergan jasotzen duten %50eko hobaria: Baldintzak malgutzea erabaki da. Beraz, bi baldintza hauek bete beharko dira hemendik aurrera hobaria jaso ahal izateko: alde batetik, familia ugariko kide guztiek Berastegin erroldatuta egon beharko dute; eta, beste aldetik, bi gurasoen artean 40.000 euro baino gutxiagoko sarrerak izan beharko ditu familia-unitateak urtean (lehen 30.000 eurotan zegoen muga).

- Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzeko dagoena: 2013an aurreikusi baino gehiago errekaudatu du Foru Aldundiak; eta, beraz, diru gehiago du udalerrien artean banatzeko. Legez indarrean dauden aldagaien arabera, Berastegiko Udalak 2013an aurreikusi baino 13.000 euro gehiago jasoko ditu Aldunditik. Diru hori 2013ko Aurrekontuaren itxieran edo zuzenean 2014ko Aurrekontuan sartuko da.

- Aurrekontu parte-hartzailea: Galdetegi bat banatu da etxez etxe, herritarren 2014ko aurrekontuari begirako proposamenak eta ekarpenak jasotzeko. Hauexek jasotako proposamenak:

- 1) Liburutegia egitea
- 2) Elduainaldeko bizilagunentzat oinezkoentzako pasabidea egokitzea
- 3) Eguzkialden kale-argi bat edo beste eta bide ertzean hesiak jartzea
- 4) Obinetaberriko eta oro har errepide nagusirako irteerak hobetzea
- 4) Herrigunea garbi eta txukun mantentzea
- 5) Zelaiko erreka garbitzea
- 6) Mendi-pistak garbitzea eta txukun mantentzea
- 7) Herri-lurren eta pisten mapa edo inbentarioa egitea

### 3. 2014ra begirako inbertsioak:

Besteren artean proiektu nagusi hauek lehenetsi ditu udal taldeak datorren urteko inbertsioetarako:

- 1) irisgarritasun plana eguneratzea eta gauzatzea (espaloiak, zebrabideak, sarrera-irteerak)
- 2) herri-bide eta lurren inbentarioa egitea
- 3) mediku-etxeke etxebizitza larrialdi egoeretarako egokitzea
- 4) kaleko argiteria hobetzea eta jasangarriago egiteko neurriak hartzea
- 5) udal liburutegia egitea

Aipatu behar da Udalak Aldunditik 46.000 euro inguruko diru-laguntza irekia eta zuzena jasoko duela, bukatu gabe dauden herri-lanetan erabiltzeko. Diru hori zertan gastatu erabakita dugu dagoeneko:

- 1) auzokonpostagailuaren ezarpenean 19.000 euro
- 2) udaletxearen iparraldeko fatxadaren konponketa-lanetan 10.000 euro (aurrez 9.000 euroko laguntza dago jasota honetarako)
- 3) larrialdi egoeretan erabiltzeko mediku-etxeke etxebizitza egokitzeko beste 17.000 euro.

Behean duzue 2013an jaso edo eskatutako diru-laguntza guztien taula:

PROIEKTUA	ERAKUNDEA	ESKATUTAKOA	EGOERA	DIRULAGUNTZA	JUSTIFIKA-ZIOA
Euskara sustapena	GFA	1.000€	ONARTUA	1.000€	2014 martxoan justifikatu
Udaletxeke fatxada	GFA KULTURA	18.983€	ONARTUA	9.000€	Justifikatua
Herrian bi auzok.	GFA INGURUMENA	15.593€	ONARTUA	8.917€	Justifikatua
Kultur jarduerak	GFA KULTURA	4.000€	ONARTUA	4.000€	Justifikatua
Udaletxeke teleko-munikazioa	GFA BERRIKUNTZA	5.166,7€	ONARTUA	3.875€	%50 Justifikatua
Artxibozain kontratazioa	EJ-KULTURA	13.942€	EBAZPEN ZAIN		
Argiteria	EVE	33.865€	EBAZPEN ZAIN		
Argiteria	GFA INGURUMENA	33.865€	EBAZPEN ZAIN		
Artxiboko lokala	EJ-KULTURA	56.882€	EBAZPEN ZAIN		
Irisgarritasun plana	EJ- ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKA	12.000€	EBAZPEN ZAIN		
HAPO	GFA LURRALDE ANTOLAKETA	38.720€	EBAZPEN ZAIN		
Inbertsioak	GFA	46.000€	ONARTUA	46.000€	AZALDU

**4. Aldundiari lotutako Itten erakundea:** Etorlur erakundearen aldia bukatu da, eta orain Itten erakundea sortu da. Gipuzkoan 1.000 biztanletik behera dituzten udalerriekin egiten du lan, eta elkarlan-hitzarmen bat sinatzeko asmoa du Ittenek Berastegiko Udalarekin, nahiz eta udalerriak mila biztanle baino gehiago izan. Lehen, *Landa Gipuzkoa 21* proiektuarekin udalerrietako obrak aurrera eramateko dirua ematea zuen erakundeak helburu. Orain, ordea, aholkularitza administratibo eta juridikoa eskaini nahi du gehiago, eta teknikoan lan-poltsa bat sortu nahi da horretarako. Martxan dauden diru-laguntzen berri ere ematen du erakundeak, baita eskaerak egiten eta kudeatzen lagundu ere. Itten-ek eskaintzen dituen zerbitzuak doakoak izango dira.



izan berria,  
izen berria

Obrak egin aurretik, parte-hartze prozesuak egingo dira herritarrekin; eta obrak egiteko, berriz, auzolana sustatzen eta antolatzen saiatuko dira. Pello Gaskon da erakundeko zuzendaria.

Hitz egindakoaren arabera, ea datorren urtean Berastegin liburutegia egiteko proiektuarekin hasten garen.

**5. PTP, Plan Territorial Parcial edo Lurralde Plan Partziala:** Izen hori dauka eskualde mailako hirigintza plan orokorrak. Proiektua aspaldi diseinatu zen, eta ez ditu eskualdearen gaurko errealitatearen eskakizunak jasotzen. Oraindik legez onartu gabe dago, nahiz eta legeak eskualde mailako hirigintza proiektu batek martxan egon behar duela agindu. Foru Aldundiak bazuen proiektu berri bat egiteko asmoa, baina legealdian egiteko eta gauzatzeko denborarik izango ez duenez, aspaldiko proiektu horri onarpena ematea erabaki du.

Proiektu zaharra, ordea, oso zentralista dela iruditzen zaigu, eta ez dituela Berastegi eta Berastegi bezalako udalerrri txikienen interesak jasotzen. Bestela esanda, gutxi garatutako herriei garatzeko aukerak ukatzen dizkie. Esate baterako, Berastegirentzat berebiziko garrantzia duen Artalekuko eremua industriagune izatetik kanpo uzten du. Beraz, eskualdeko herri gehienak bat etorri dira proiektuari alegazioak aurkezteko erabakian; eta Berastegiko Udalak ere, udal mailan nahiz eskualde mailan, alegazioak aurkezteko asmoa du.

## UDAL FUNTZIONAMENDUA

6. **Langile-kontratazioa:** Jone Atxukarro Berasategi kontratatu da 5 hilabetez herri-lanetan aritzeko. Foru Aldundiaren eta Udalaren ekimenez egin ahal izan da kontratuta. Lanbideko zerrenda kontuan hartuta eta puntuazio-sistema baten galbahea pasata, Tolosaldea Garatzenek bideratutako azterketa praktikoa baten ondoren egin da hautaketa.

7. **Udal artxibo administratiboa eguneratuta:** Bukatu du lanaldia Joseba Bergaretxek, eta egunez egun erabiltzen den udal artxiboa txukun geratu da.

8. **Kontratazio berria udaberrian:** Apiriletik aurrera beste 5 hilabetez herri-lanetan aritzeko langilea kontratatuko da. Foru Aldundiak ordainduko du kostuaren %50.

## HONDAKINEN KUDEAKETA

9. **Hondakinen kudeaketa plan berria martxan:** Abenduaren 5eko batzar bereziaren ondoren eta 10etik 12ra plan berriari buruzko informazioa eta errefus-ontzietako giltzak banatu eta gero, esan liteke dagoeneko Berastegi ere ZERO ZABOR herri dugula:

- 1) 9 bilketa-gune egokituta
- 2) Autokonpostagailuez gain, auzokonpostagailuak ere martxan
- 3) Gai birziklagarriak biltzeko lehen baino edukiontzi gehiago
- 4) Eta errefusa biltzeko ontziak, berriz, lehen baino txikiagoak, ez lehen bezain sakabanatuta, eta giltzaz itxita, birziklatze-tasarik onenak lortzeko

Herritarrekin ez ezik, elkarte, komertzio eta enprekin ere bildu da Udala; eta, beraz, denok goaz bide berean, ahalik eta gehien birziklatzeko eta ahalik eta zabor gutxien sortzeko bidean aurrera.

10. **Plazako auzokonpostagailuaren ezarpen-lanak:** Udaletxearen iparraldeko fatxadako konponketa-lanak egin eta gero, auzokonpostagailua eta ingurua egokitzeko lanak ere egin dira. Goitu enpresak egin du obra, eta 27.000 euroko kostua izan du.



## ESKUALDEKO BERRIAK

**11. Tolosaldeko Komunikazio Taldea:** Hitzak, Galtzaundik eta Txolarre irratiak osatutako komunikazio-talde berriari biztanleko 3 euroko laguntza (3.000 euro pasatxo) ematea erabaki du Udalak. 2014ko Aurrekontuan adierazia dago. Talde bateratu berriari diru-laguntza handituta, zerbitzu hobea jasoko du Berastegiko udalerriak.

**12. Leitzarano Plazaola proiektua:** Bailarako hainbat udal ordezkari bileran egin dute Leitzarano inguruan turismo plan zabalago bat antolatu eta gauzatzeko; Imotz, Leitza, Areso, Berastegi, Elduain, Amasa-Villabona eta Andoaingo ordezkariak, hain zuzen. Momentuz lan-taldea osatu da, eta diru-laguntzak bilatzen hasteko asmoa dago.



Honen haritik, bada elkarte bat Gipuzkoako herrietako kultur ondarea eta ondare historikoa berreskuratzeko ahaleginean ari dena, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Tartean da Carlos Olaetxea ikerlaria. Nolabait ere Gipuzkoa aldeko herriak elkartu eta Europako %1 kulturala diru-laguntza lortzeko pausoak ematea da asmoa.

## MOTZEAN

**13. Autobus-zerbitzuaren kontzesio berria:** Herritarrek egindako alegazioei erantzunez, eskaera guzti-guztiak onartu dituzte. Beraz, maiatzetik aurrera martxan izatea espero da eskualdeko autobus-zerbitzu eraberritua. Ordutegiak lotzerakoan izan dira zenbait arazo. Hala ere, informazio gehiago izan bezain laster zabalduko du Udalak.

**14. Arkitektoa eta aparejadorea berriz ere astean behin udal bulegoetan:** Hala erabaki da, beharra dagoela ikusita. Asteazken batean bileretarako izango dira udaletxean, eta hurrengoan martxan diren lanak edo obrak bisitatzeko.

**15. Espainiako bandera ezartzeko agindua:** Berriz ere jaso du Udalak bandera jartzeko agindua. Lehen udaletxeko obrak zirela-eta, prozesuak nolabaiteko luzapena izan zuen. Orain, ordea, erabaki beharko da zer egin. Bi aukera daude: jartzea edo ez jartzea. Jartzeak ez du atzera bueltarik. Jartzen ez bada, berriz, instantzien bidean sartuko litzateke Udala. Epaiketa dela, abokatuaren zerbitzuak direla, 4.000 euroko kostua eragingo lioke Udalari instantzia bakoitzak, eta aldiro 10 hilabeteko atzerapena izango luke prozesuak.

**16. Indarkeria sexistaren inguruko tailer mistoak:** 4 orduko iraupena izango dute, eta urtarrilaren 18an egingo dira. *Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza feminista* elkarteak eskainiko ditu.

## KULTURA

**17. Kultur Astearen balantzea:** Jende ugari hurbildu da Kultur Asteko ekitaldietara (hitzaldi, kantaldi, antzerki eta abarretara), eta herritarren parte-hartzea ere zabala izan da (umeentzako ekintzetan, talo-ikastaroan, Azoka Egunean...). Guztira 6.548 euro gastatu dira aurtengo Kultur Astearen antolakuntzan.

**18. Abenduak 3 Euskararen Eguna:** Udalak bat egin zuen Euskararen Nazioarteko Eguneko aldarrikapen eta ospakizunekin. Arratsaldean, txikientzako jolasak eta Altxorraren Jokoa izan ziren frontoi inguruan; eta, helduentzat, berriz, kafe-tertulia Gaztainondo elkartearen. Herritar ugari hartu zuten parte, eta kantuz bukatu genuen eguna.



### PRESO ETA IHESLARIEN ESKUBIDEEN ALDE



Urtarrilaren 11n  
denok Bilbora

**HERRI MOBILIZAZIO  
OROKORRA**

arratsaldeko 17:30etan



Autobusa antolatu da (15:00etan) eta joan nahi duenak izena eman dezala Udaletxean, Biltokian, Zelain, Dendaberrin edo Basurde Elkartearen.

Autobusa 10 € ordaindu beharko da, baina hurrek, ikasleek eta langabetuek dohain izango dute.

Animatu!!

**2014 URTE BERRI ON OPA DIZUE UDAL TALDEAK  
DENOI!!!**